



Tolosako Udala

TOLOSAKO UDALEKO ARKITEKTO TEKNIKOAREN LANPOSTUA BETETZEKO BITARTEKO FUNTZIONARIOA HAUTATZEKO DEIALDIA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

LEHENA.- Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da bitarteko funtzionario bat hautatzea, oposizio-lehiaketa bidez, Tolosako Udaleko disziplina eta jardueretako arkitekto teknikoaren lanpostuko bitarteko funtzionarioa ordezkatzeko, eta aldi baterako beharrak betetzeko lan-poltsa osatzea.

BIGARRENA.- Lanpostuaren ezaugarriak

Lanpostuak honako ezaugarri hauek ditu:

- Lanpostua: Disziplina eta jardueretako arkitekto teknikoa
- Eskala: Administrazio Berezia
- Azpieskala: Teknikaria
- Sailkapen-taldea: A2
- Titulazioa: Arkitekto teknikoa
- Hizkuntza-eskakizuna: HAEEko 4. HE, derrigorrezkoa.
- Ordainsariak: A2 taldea; lanpostu-mailako osagarria, 20; Berariazko osagarria, 18.560,78 euro urtean.
- Lan-harremana: funtzionarioa

Eguneko lanaldia izango da Tolosako Udalak ezartzen duena, beti ere zerbitzuaren izaera eta beharrian espezifikoak kontuan izanda.

HIRUGARRENA.- Lanpostuaren eginkizunak

HIRIGINTZAKO DIZIPLINA:

1. Obra txikiko lizentziei eta obra aurreko jakinarazpenei buruzko irizpen teknikoa ematea hiri-lurzoruko eraikinetan.
2. Aldamioen eta karga-jasogailuen proiektuei buruzko irizpen teknikoa ematea.
3. Obra txikien lizentzien luzapen- edo iraungitze-eskaerei buruzko irizpen teknikoa ematea.
4. Obra-ikuskapenak egitea, herritarrek egindako salaketen gaineko irizpena emateko (eragozpenak, zaratak, etab.).
5. Betearazteko aginduak ematea, eraikinetako askatzeek eragindako arriskua minimizatzen.
6. Jarduerekin lotutako obra-lizentziei buruzko irizpena ematea.
7. Eraikinetako ikuskapen teknikoei buruzko irizpena ematea.



Tolosako Udala

JARDUERAK:

8. Aurretiaz jakinarazi beharreko hiri-lurzoruko jardueren eskaerei buruzko eta administrazio-lizentziak behar dituzten jardueri buruzko irizpen teknikoa ematea.
9. Hiri-lurzoruko jarduera-lizentzien titulartasuna aldatzeko eskaerei buruzko irizpen teknikoa ematea.
10. Jakinarazitako eta lizentzia behar duten jardueren ikuskapenak egitea, herritarrek egindako salaketen gaineko irizpena emateko (eragozpenak, zaratak, etab.).
11. Betearazteko aginduak ematea, lizentziarik gabeko jarduerak direla-eta, besteentzako arriskuak minimizatzeke.
12. Jardueren luzapen- edo iraungitze-eskaerei buruzko irizpen teknikoa ematea.

BESTELAKOAK:

13. Herritarrei arreta eta informazioa ematea, zuzenean eta telefonoz, bere eskumeneko arloetan.
14. Mantentze- eta hobetze-obrak gauzatzeko dirulaguntzak eskatzeko memoriak egitea, lanen exekuzioa ikuskatzea eta haren justifikazioaz arduratzea.
15. Obra-proiektuak edo -dokumentuak idaztea, proiekturik ez bada behar, udal-obrak egiteko.
16. Proiektu tekniko txikien obra-zuzendaritza egitea, edo beste batzuek gauzatu dituzten udal-sustapeneko obren zuzendaritza kontrolatu eta ikuskatzea.

UNITATE/SAILAREN KUDEAKETA:

17. Bere funtzio-eremuko espedienteetan proposamen teknikoen orriak egitea, eta balioespen-txostenak egitea horietan oinarritutako lizitazioetan.
18. Kontratazio-organoak zehazten dituen kontratuez arduratzea, zerbitzua edo hornidura ematen dela bermatzea, eta horien ondoriozko fakturak egitea.

EGINKIZUN KOMUNAK:

19. Arloa hobetzen laguntzea eta hobekuntza hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta aldaketak proposatzea.
20. Lana antolatzea, ezarritako helburuak beteko direla bermatzeko.
21. Unitatera/arloratxikita dauden gainerako langileei laguntzea lanak pilatzen direnean, edo langileren bat kanpoan edo gaixorik dagoenean.
22. Lankideei aholkuak ematea eta laguntzea, bere ezagutza edota eskarmentuagatik hobeto menderatzen dituen lanetan.
23. Arloan dauden instalazioen eta baliabideen erabilera, kontserbazioa eta mantentzea egokia dela begiratu eta zaintzea.
24. Bere kategoriarik dagokion eta agintzen zaion beste edozein lan egitea, aldeztu aurretik horretarako jarraibideak jasota.



Tolosako Udala

LAUGARRENA.- Izangaiek bete behar dituzten baldintzak

Honako baldintza hauek bete beharko dira hautaketa-prozesuan onartua izateko:

a) Nazionalitateari dagokionez, baldintza hauetako bat:

a.— Europar Batasuneko herrialderen bateko nazionalitatea izatea.

b.— Europar Batasuneko estatueto nazionalitatea duen norbaiten ezkontidea izatea, edozein nazionalitate izanda ere, eta betiere zuzenbidez bananduta ez egotea. Halaber, baldintza beretan parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatueto nazionalitatea dutenen ondorengoek, baldin eta 21 urte baino gutxiago badute, edo 21 urtetik gorakoak izan arren norbaiten mendekotasuna badute.

c.— Europar Batasunak sinatutako eta espainiar estatuak berretsitako Nazioarteko Itunen arabera langileen zirkulazio askea aplikatzekoa den eremuko izatea.

Espainiar estatuan bizi ez diren izangaiek, eskabidearekin batera, dokumentazioa aurkeztu behar dute alegatzen dituzten baldintzak egiaztatzeko.

b) 16 urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, ez gainditzea nahitaezko erretiroa lortzeko adina.

c) Titulazioa: Arkitekto teknikoa

d) 4. edo 3. hizkuntza-eskakizuna (HE) egiaztatzen duen agiria edukitzea.

Bete nahi den lanpostuak derrigorrezko 4. hizkuntza-eskakizuna dauka esleitura; horrenbestez, 4. HE izatea ezinbestekoa da lanpostua betetzeko (Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 98. artikulua).

Hala ere, izangai batek berak ere ez badu adierazitako 4. HE egiaztatzen, lanpostuari 3. HE aplikatuko zaio, soil-soilik deialdi honetan betetzeko eta sortuko den lan-poltsan sartzeko ondorioetarako (Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2 artikulua).

Hortaz, 3. HE daukatela egiaztatzen duten izangaiek ere parte hartu ahal izango dute hautaketa-prozesu honetan.

e) Lanpostuari dagozkion lanak egiteko gai izatea, eta lan horietan behar bezala aritzea eragotziko lukeen gaixotasunik edo eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea. Baldintza hori dagokion unean egiaztatu beharko du lanpostu batean hastera deitutako izangaiek, azterketa medikua eginda udalak horretarako ezarria duen zerbitzuan.

f) Diziplina-espediente bitartez inongo Administrazio Publikoetako zerbitzutik baztertuta edo kanporatuta ez egotea, eta desgaiak ez izatea (erabatekoa zein berezia) enplegu edo kargu publikoak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, estatu horretan ez edukitzea



Tolosako Udala

desgaikuntzarik edo antzeko egoerarik, ezta estatu hartan Funtzio Publikoan jardutea galaraziko liokeen diziplina-zehapenik edo zigor-kondenarik ere.

g) Indarrean dagoen araudiaren arabera, ezgaitasun- edo bateraezintasun-auziren batean sarturik ez egotea; hala ere, araudiak ematen duen aukera-eskubidea errespetatuko da.

Izangaiak beteta eduki behar dituzte baldintza horiek deialdian onartuak izateko eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, eta lanpostuaz jabetu arte bete beharko dituzte.

Halaber, prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero izangaietako batek ez dituela betetzen deialdiak eskatzen dituen baldintzak, izangai hori prozeduratik kanpo geratuko da, berarekin hitz egin eta gero, eta hautaketa-prozesura deitu duen agintaritzari emango zaio horren berri, egun horretan bertan.

BOSGARRENA.- Epaimahai kalifikatzailearen osaera

- Lehendakaria: udal idazkaria edo berak izendatutako ordezkoa

- Mahaiko kideak:

- Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako burua
- Tolosako Udaleko bi arkitekto tekniko

- Idazkaria: Giza Baliabideetako teknikaria edo berak izendatutako ordezkoa

Epaimahaiaren jarduketa-prozedura Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan zehaztutakora egokituko da beti.

Enplegu Zerbitzu Publikoek aurrez hautatutako izangaiak epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako baldintzak gertatzen direnean.

Epaimahaiaren ardura izango da ariketen garapenean sor daitezkeen gorabeherak aztertzea, egiaztatzea eta balioestea, eta egokituz jotzen dituen erabaki arrazoituak hartzea.

SEIGARRENA.- Izangaiak aukeratzea

Lanpostua betetzea premiazkoa denez, komeni da Enplegu Zerbitzu Publikora (LANBIDE) jotzea.

Tolosako Udalak Lanbideri eskatuko dio gehienez ere 7 egun balioduneko epean lan-eskaintza bat irekitzeko, oinarri hauetan zerrendatutako baldintzak betetzen dituzten hautagaiak eskabidea



Tolosako Udala

Lanbidek gaitutako plataformetan aurkeztu ahal izan dezaten. Beraz, zerbitzu horrek hautatutako izangaien artean egingo da aukeraketa.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak eta zazpigarren oinarriaren arabera baloratuko diren merezimenduak, Lanbideren datu basean agertu beharko dute (hautagaiaren Curriculum Vitae), kontuan hartu ahal izateko.

Horretarako, partaide bakoitzaren arduraz izango da CV hori eguneratzea Lanbideren aurrean izen-emate epearen barruan.

ZAZPIGARRENA.- Hautaketa-prozesua

Parte-hartzaileek adierazitako merezimenduak eskabideak aurkezteko epea amaitu arte lortuak eta zenbatuak izan beharko dute.

Hautaketa-prozesuak bi fase izango ditu:

1.- Oposizioa

Fase honetan gehienez 60 puntu lortu ahal izango dira, eta honako proba hau/ek egingo dira:

- Proba teoriko edo praktikoa/k: Eranskinean ezarritako gaitegiarekin erlazionatutako edo lanpostuaren funtzioekin erlazionatutako proba teoriko/praktiko bat edo gehiago egingo dira, epaimahairen esku geratuko dena. Gehienez 60 puntu lortu ahal izango dira eta, gutxienez, 30 puntu lortu beharko dira proba gainditzeko.

2.- Merezimenduen balorazioa

Fase honetan gehienez 10,5 puntu lortu ahal izango dira, eta merezimendu hauek baloratuko dira:

- Lan-esperientzia alor publikoan: eskainitako lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzen edozein administrazio publikotan izandako esperientzia profesionala baloratuko da. Zehazki, hilabete bakoitzeko 0,2 puntu emango dira, eta gehienez 8 puntu.

- Lan-esperientzia alor pribatuan: eskainitako lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzen arlo pribatuan izandako esperientzia profesionala baloratuko da. Zehazki, hilabete bakoitzeko 0,1 puntu emango dira, eta gehienez 2,5 puntu.

ZORTZIGARRENA.- Jakinarazpenak



Tolosako Udala

Epaimahai kalifikatzailearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak Tolosako Udalaren web orriaren eta iragarki-taularen bitartez egingo dira.

BEDERATZIGARRENA.- Emaitzak argitaratzea eta berrikustea

Proba bakoitzaren emaitzak argitaratu ondoren, gutxienez 3 egun balioduneko epea ezarriko da azterketak berrikusteko, eta, ondoren, erreklamazioak egiteko 3 egun balioduneko epea, azterketa berrikusteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Erreklamazioak idatziz aurkeztu beharko zaizkio epaimahaiburuari, Herritarren Arretarako Bulegoan (UDATE), edo epaimahaiko idazkariari, ofizialki erregistratu ditzan. Tolosako Udalaren Erregistro Elektronikorokorrean ere aurkeztu ahal izango dira.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko emaitzak behin betikotzat joko dira automatikoki. Proba guztiak eta lehiaketa-fasea amaitu ondoren, epaimahaiak proba guztiak gainditu dituzten izangaien zerrenda argitaratuko du, lortutako guztizko puntuazioaren arabera, eta proba bakoitzean lortutako puntuak eta azken puntuazioa adieraziko ditu.

HAMARGARRENA.- Izendapena

Alkateak bitarteko funtzionarioa izendatu eta karguaz jabetuko du, deialdian eskatzen diren gaitasun-baldintzak eta betekizunak justifikatu ondoren.

HAMAIKAGARRENA.- Dokumentazioa aurkeztea

Hautaketa-prozesuan zehar aurkeztu beharrekoak:

Epaimahaiak 7 lan eguneko epea irekiko du hautaketa-prozesuan zehar eskabideak aurkezteko fasean alegatutako merezimenduak egiaztatzeko. Ez da beharrezkoa izango Tolosako Udaleko langileen espedientean dauden dokumentuak aurkeztea.

Hautaketa-prozesua amaitutakoan aurkeztu beharrekoak:

Hautaketa-prozesua gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denean, epe bat irekiko da hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak aurkezteko.

Ezarritako epearen barruan, ezinbesteko arrazoiak salbu, zerrendako izangaietakoren batek ez badu aurkezten agiririk edo ez badu egiaztatzen eskatutako baldintzak betetzen dituela, ezingo zaio izendatu, berak egindako guztia baliorik gabe geratuko da eta izendatua izateko eskubide



Tolosako Udala

guztiak galduko ditu. Nolanahi ere faltsukeriagatik izan lezakeen erantzukizunari aurre egin beharko dio.

HAMABIGARRENA.- Lan-poltsa eratzea

Bi lan poltsa osatuko dira, oposizio-faseko azkeneko puntuazioaren arabera hurrenkeran (puntu gehien lortu duenetik hasita) eta hautagai bakoitzak egiaztatutako HE (4. edo 3.) adierazita:

- Lehenengo lan poltsa oposizio-fasea gainditu eta 4. HE egiaztatu duten hautagaiek osatuko dute. Lan poltsa horrek lehentasuna izango du betiere hornitu beharreko lanpostuari derrigorrezkotasun data gainditua duen 4. HE badagokio.

- Bigarren lan poltsa oposizio-fasea gainditu eta 3. HE egiaztatu duten hautagaiek osatuko dute.

Hala ere, 3. HE egiaztatuta daukatela ageri diren hautagaiek hautaketa-prozesua burutu ostean 4. HE egiaztatzen badute, dagokion egiaztagiria aurkeztu diezaioke Tolosako Udalari. Hori eginda, 4. HE dutenen zerrendan azalduko dira, puntuazioaren arabera dagokien postuan.

Lan poltsa horiek erabili ahal izango ditu udalak berak lanpostu berean edo antzeko funtzioak dituzten lanpostuetan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko.

HAMAHIRUGARRENA.- Gertakariak eta legeria osagarria

Epaimahaiak ahalmena du gerta daitezkeen zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesuaren garapen egokirako beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez den gaitan.

Oinarrietan aurreikusi gabekoetan, honako hauek aplikatuko dira:

Estatuko Administrazioaren zerbitzura diharduten langileak sartzeko erreglamendua, 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak auratzen dituena; 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena; 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki-administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarritzko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dituena; APU/1461/2002 Agindua, ekainaren 6koa, bitarteko funtzionarioak hautatu eta izendatzeko arauari buruzkoa, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak.

HAMALAU GARRENA.- Deialdiaren inpugnazioa.



Tolosako Udala

Interesdunek inpugnatu egin ditzakete deialdia, haren oinarriak eta haien ondoriozko eta epaimahaiaren jardunbidearen ondoriozko ekintza administratiboak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak, urriak 1ekoa, dioen kasuetan eta moduan.

Tolosan, martxoaren 29an.



Tolosako Udala

ERANSKINA

1. Ley 38/1999, de 5 de noviembre, de Ordenación de la Edificación.
2. Real Decreto 1627/1997, de de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y de salud en las obras de construcción. Estudio de seguridad y salud en las obras. Designación de los coordinadores en materia de seguridad y salud.
3. Ley 20/1997, de 4 de diciembre, de promoción de la accesibilidad y supresión de barreras arquitectónicas y sus normas técnicas de desarrollo (Decreto 68/2000, de 11 de abril, del Gobierno Vasco, por el que se aprueban las Normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación).
4. Decreto 68/2000 del Gobierno Vasco, del 11 de abril, por el que se aprueban las Normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad en entornos urbanos. (anexos II, III, IV y V).
5. Código técnico de edificación. Real Decreto 314/2006, de 17 de marzo, por el que se aprueba el Código Técnico de Edificación. Disposiciones generales, condiciones técnicas y administrativas. Exigencias básicas. Anejos I, II y III.
6. Código técnico de edificación. Real Decreto 314/2006, de 17 de marzo, por el que se aprueba el Código Técnico de Edificación. CTE-DB-SI - Seguridad en caso de Incendio. CTE-SUA - Seguridad de Utilización y Accesibilidad. CTE-DB-HR - Protección frente al ruido. CTE-DB-HS - Salubridad. CTE-DB-HE - Ahorro de energía, HE0, HE1, HE2, HE3, HE4, HE5.
7. Decreto 209/2014, de 28 de octubre, que regula el Control de Calidad de la Construcción.
8. Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.
9. Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.
10. Decreto 117/2018, de 24 de julio, de la inspección técnica de los edificios en la Comunidad Autónoma del País Vasco; Plazos para la presentación, registro de las inspecciones, incumplimientos y sanciones.
11. Ley del Suelo y Urbanismo del País Vasco, de 30 de junio (LSU): Títulos I y II. Principios generales del urbanismo. Clasificación y calificación de suelo. Régimen del suelo urbano, urbanizable y no urbanizable. Ámbitos de ordenación urbanística: Ordenación urbanística estructural y ordenación pormenorizada. Planes Urbanísticos: Clases de planes y jerarquía.
12. LSU. Título V. Capítulo VI. Conservación de obras y construcciones: obras de urbanización, obras de conservación y rehabilitación en bienes inmuebles en general.



Tolosako Udala

13. LSU. Título IV. Garantía y protección de la ordenación urbanística: Principios generales. Licencias urbanísticas. Inspección urbanística. Disciplina urbanística.
14. LEY 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi. Título V y Anexos IC, ID y IE
15. Real Decreto 2267/2004, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de seguridad contra incendios en los establecimientos industriales. Caracterización de los establecimientos industriales. Requisitos constructivos según su configuración, ubicación y nivel de riesgo intrínseco. Requisitos de las instalaciones de protección a implantar.
16. Real Decreto 513/2017, de 22 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento de instalaciones de protección contra incendios.
17. Real Decreto 1027/2007, de 20 de julio. Reglamento Instalaciones Térmicas en los Edificios (RITE).
18. Real Decreto 842/2002, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento electrotécnico para baja tensión.
19. Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales.
20. Calificación energética de edificios en el País Vasco. Procedimiento para la certificación de la eficiencia energética.
21. Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa.
22. Ordenanzas municipales de urbanización, edificación y protección ambiental, paisajística y naturalística de Tolosa. Títulos III, IV y IX.

